# IRAGARKIAK

## Beste iragarki ofizial batzuk

### EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

### 4838

*IRAGARKIA, 2019ko urriaren 9koa, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Bizkaiko lurralde-ordezkariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita honako linea berri honetarako proiektua: Barrikako (Bizkaia) udal-mugartean, 13,2 kV-ko goi-tentsioko linea elektrikoa, «Sopelana-Plentzia, cto. 3» eta «Gorliz-Larrabasterra, cto. 2» lineak lotzen dituena.*

Abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuaren 10. artikuluan (2002-12-23ko EHAA) eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 144. artikuluan (2000-12-27ko BOE) zehaztutako ondorioetarako, eta lege-testu hauetan xedatutakoarekin bat: testu horretako azken xedapenetako lehenengoa; Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1957ko apirilaren 26ko Legearen Erregelamenduaren 17. artikulua; Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 55. artikulua (2013-12-27ko BOE); Energia eta Meategien zuzendariaren 2011ko martxoaren 8ko Ebazpena (2011-05-31ko EHAA), jendaurrean jartzen da jarduera hau, zeinetarako eskabidea Iberdrola Distribución Eléctrica SAU-k egin baitu.

Esp: 48-AT-Y-2019-00076.

– Kokalekua: Barrikako udal-mugartean.

– Aurrekontua: 61.669,69 euro.

– Xedea: energia elektrikoaren kalitatea eta horniduraren segurtasuna hobetzea.

Jardueraren ezaugarri nagusiak:

13,2 kV-ko aireko linea elektriko berria, bertan dauden «Sopelana-Plentzia, cto. 3» eta «Gorliz-Larrabasterra, cto. 2» lineak lotuko dituena. Zirkuito bakarreko 1038 metro.

Instalazioa egiteko administrazio-baimena, egikaritze-proiektuaren onarpena eta onura publikoaren deklarazioa eskatzen da.

Argitara ematen da hori guztia jendeak horren berri izan dezan, bereziki lursailen jabeek eta jarduerak ukitutako gainerako titularrek, zeinek dokumentazioa aztertu ahalko baitute sail honen Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan (Concha Jeneralaren kalea 23, 5. solairua, Bilbao), dagokion udalean edo url honetan: http://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/

Iragarki honen amaieran dago jasota interesdunen zerrenda. Bidezko iritzitako alegazioak – bi kopia – dagokion ordezkaritzan aurkeztu beharko dira, hogei eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Bilbao, 2019ko urriaren 9a.

Lurralde-ordezkaria,
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.

## ERANSKINA

### BARRIKAKO (BIZKAIA) UDAL-MUGARTEAN, 13,2 KV-KO GOI-TENTSIOKO LINEA ELEKTRIKOA, «SOPELANA-PLENTZIA, CTO. 3» ETA «GORLIZ-LARRABASTERRA, CTO. 2» LINEAK LOTZEN DITUENA

| Finka (Proiektuaren arabera) | Katastro datuak | | | Titularra | Afekzioak | | | | | | Lurzorua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Udalerria | Polig. | Lursaila | Jabea | Euskarria | Linearen luzera (m) | Hodi zabalera (m) | Eraginpeko azalera (m2) | Zuhaitz mota | Zuhaitz azalera (m2) | |
| 1 | Barrika | 3 | 31 | BFA – Ondare Serbitzua – Hogasun Saila | 1, 2, 3 | 225 | 4 | 3965 | Hostotsuak, 10-12 m | 969 | Landalurra |
| 9 | Barrika | 3 | 137 | Elorriaga Zarraga María | BT-ko hiru euskarri kendu eta konexio berria egin | | 4 | 248 | Lurpeko linea (165 m) | | Landalurra |